



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

AMOREBIETA-ETXANO UDALERRIAN FATXADAK ETA ESTALKIAK ZAHARBERRITU, KONPONDU ETA BERRITZEKO, OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO ETA BIZITEGI ETA EKIPAMENDU ERABILERAKO ERAIKINETAN IGOGAILUAK JARTZEKO DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDARI BURUZKO ORDENANTZA BEREZIA

ARRAZOIEN AZALPENA

Honako araudiak, udalerrian ingurune publikoaren artapen, mantentze eta apaingarrien egoera hobetzea eta bizitegi eta ekipamendu erabilerako eraikinetan oztopo arkitektonikoak kentzea du helburu.

1. ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA

Honako Ordenantzak arautzen dituen diru-laguntzen helburua diru-laguntzak ematea da:

- Amorebieta-Etxano udalerrian bizitegi eta ekipamendu erabilerako eraikinetako fatxada eta estalki osoak zaharberitu, konpondu eta berritzeko.
- Amorebieta-Etxano udalerrian bizitegi eta ekipamendu erabilerako eraikinetan oztopo arkitektonikoak kentzeko eta igogailuak jartzeko.

Helburu beragatik udalaren azken diru-laguntza jaso zuenetik hamabost urte, gutxienez, igaro ez badira, ezin izango du diru-laguntza jaso, salbuespenezko arrazoirik egiaztatzen ez bada.

Diru-laguntza bateragarria da xede bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin eta diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarka zein beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

2. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Honakoak izan daitezke diru-laguntzen onuradunak:

- a.- Eraikinaren jabe bakarra edo bere maizterra, jabeak idatziz baimena ematen badu.
- b.- Eraikinetako jabekideen erkidegoak, legez eraturta badaude.
- c.- Kode Zibilaren 396 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eta jabetza horizontaleko eraketa-titulua eman ez duten erkidegoak.
- d.- Ekipamenduen titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak.

Fatxada eta estalki osoak zaharberitu, konpondu eta berritzen, oztopo arkitektonikoak kentzen eta igogailuak jartzen laguntzeko fondoak eman daitezke, baldin eta honako eskakizunak betetzen badira:

- 1.- Eraikinak bizitegi eta ekipamendu erabilerakoak izatea, Amorebieta-Etxano udalerrian indarrean dauden Arau Subsidiarioetan ezarri bezalaxe.
- 2.- Diruz laguntzen diren obrek udal lizentzia izatea eta aurreko deialdia BAOn argitaratzen denetik laguntza eskatzen den deialdia BAOn argitaratu arte, obrak amaituta egotea .
- 3.- Fatxadak zaharberitzeko obretan, leku publikotik ikusten den fatxada konpondu, zaharberitu edo berritzeko lanak izatea.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

4.- Eraikina erabat edo zati bat zaharberritzeko jarduketa edo proiektu osoak direnean, diruz lagundu nahi diren obren balorazioa egiten duen gehikina erantsi behar zaio diru-laguntzaren eskabideari.

5.- Honako arau honek ezartzen duen edozein laguntza eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa da onuradunak udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ordainduta izatea.

6.- Lanak behar bezala burutzeko behar diren segurtasun-neurriak hartzea, eskatzailearen kontura eta erantzukizunpean geratzen da; obren zuzendaritzan teknikari gaituak esku hartuko du, legeek hala ezartzen baldin badute.

7.- Lizentzien eskualdaketak diru-laguntzaren eskualdaketa dakar.

3. ARTIKULUA. AURREKONTU ZUZKIDURA

Diru-laguntzen deialdian ezarritako diru-kopurua, ekitaldi bakoitzeko udal aurrekontuan jasotzen den, diru-laguntza horiek emateko erabiliko da.

4. ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Diru-laguntzen deialdia Amorebieta-Etxanoko alkate-udalburuak egingo du iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko hedapen handieneko egunkari batean argitaratuz, eta udalaren iragarki-oholean eta web orrian jarritz.

Eskabideen aurkezpena.

A) Eskabidea, Alkate Udalburuari zuzenduta, Udal Bulego Teknikoaren sarrera-erregistroan aurkeztu behar da edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38. artikulua ezarritako bideetako bat erabiliz, 20 laneguneko epean, deialdia BAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatuta.

- Eskaria eraikinaren jabe bakarrak edo beronen maizterrak egin badu, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

-Jabetza-eskrituraren kopia edo Jabetza Erregistroaren Informazioko Ohar soila.

-Alokairuko kontratuaren kopia konpultsatua, hala behar bada, eta jabearen baimena, eskaria maizterrek egiten badute.

- Eskaria legez eraturako jabekideen erkidegoak egin badute, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

-Jabekideen erkidegoaren eskabidea, presidenteak sinatua.

-Presidentearen NANaren fotokopia

-Obrak egiteko erabakia hartu zuen Jabekideen Batzarraren Aktaren fotokopia, baita presidentearen izendapenaren fotokopia ere.

-Jabekideen Erkidegoaren IFKren fotokopia.

- Ordenantza honen 2.c. artikuluan aipatzen den erkidego batek egin badu, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

-Erkidegoaren eskaria, jabekideak eta dagozkien partaidetza-kuotak barne, jabekideek sinatua edo



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

behar denean, erkidegoaren legezko ordezkariak sinatua.

-Erkidegoaren ordezkariaren NANaren fotokopia.

-Obrak egiteko erabakia hartu zuen Jabekideen Batzarraren Aktaren fotokopia, baita presidentearen baimenaren fotokopia ere.

- Eskaria ekipamenduko titularrak egin badu, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

-Ekipamenduko titularraren eskabidea, ordezkariak sinatuta, hala badagokio.

-Ekipamenduko titularraren edo bere ordezkariaren NANaren fotokopia

-Titularraren IFKren fotokopia, pertsona juridikoa bada.

B) Eskararekin batera honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

-Indarreko legeriaren arabera, onuraduna izatea ezgaitzen duen lege-debekurik jaso ez izana adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.

-Obren aurrekontua edo, behar denean, teknikari gaituak idatzitako proiektua.

-Proiektua idaztea beharrezkoa ez bada, arkitekto edo aparejadore batek izenpeturiko txostena aurkeztu beharko da, honakoak jasoz: jarduketako eraikinaren hasierako eta bukaerako egoera, eskuhartzea jasateko eraikinaren ahalmena eta gomendatzen den jarduketa mota. Obraren azken egoera jasotzen duen txostenaren data kontuan hartuko da obra amaierako data moduan, izapidetzea onartzeari begira.

-Obren udal lizentziaren edo burutzapen-aginduaren, obra-amaierako egiaztagiriaren eta faktura edo fakturen fotokopia.

- Fatxadaren edo/eta estalkiaren bi argazki, eskuhartzearen aurretik eta ondoren ateratakoak.

-Onuradunaren kontuaren banku-egiaztagiria.

-Eraikuntza, instalazio eta tasen gaineko zerga eta obren udal lizentziarako eskariaren tasa udalari ordaindu izanaren egiaztagiria.

-Eraikinak 35 urte baino gehiago baditu, eraikinaren antzinakotasuna egiaztatzen duen agiria.

-Aplikazioko araudia indarrean hasten denean, EATren fotokopia.

-Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituela ziurtatzen duten egiaztagiriak, behar denean, Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandakoak.

- Lanak egitearen kostua 30.000 € baino gehiago bada, onuradunak kontratu-xede bera duten hiru eskaintza, gutxienez, aurkeztu beharko ditu, hornitzaile desberdinek eginak (obra-proiektua edo memoria balioztatua). Aurkeztutako eskaintzen artean egindako aukerak eraginkortasun eta ekonomia irizpideei eutsiko die (eskaintzak diru-laguntzarako eskabidearekin batera aurkeztu behar dira), eta proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratu ez bada, horren zergatia, beren-beregi, arrazoitu beharko da memoria batean.

C) Lehenago, edozein helburutarako udaletik jasotako diru-laguntzen egiaztagiriak aurkeztu ez badituzte, ez dira aintzat hartuko pertsona edo erakunde horien eskaerak.

D) Beste edozein erakunde publiko edo pribatutan jarduera bererako diru-laguntzako eskaera aurkeztu bada, Amorebieta-Etxanoko Udalean aurkeztu beharreko eskaeran aipatu beharko da hori; halaber, finantzazioko diru-laguntzaren eskaera zein erakundetan aurkeztu eta zenbat diru eskatu edo jaso duen adierazi beharko du.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

E) Aipatutako agiri eta datuez gain, udalak bestelako dokumentazio osagarria eskatu ahal dio eskatzaileari, aurkeztu duen proiektua baloratzeko egokitzat jotzen baldin badu.

F) Eskakerak honako oinarrietako baldintza guztiak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesatuari gehienez hamar eguneko epea emango zaio, falta den dokumentazioa aurkezteko; hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, aldez aurretik ebazpena emanaz, 30/1992 Legearen 71 artikulua araberako.

Prozeduraren instrukzioa.

Organo instruktorea Hirigintzako zinegotzia izango da eta beharrezko jarduketak guztiak egin ditzake, ebazpena oinarritzen den datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko. Horretarako Instrukzio eta Balorazioko Batzordea hauek osatuko dute:

- Udal arkitektoa.
- Udal aparejadorea.
- Udaleko Errenta Teknikaria.

Batzorde horrek, eskaera jaso ondoren, beharrezko jarduketak egin ditzake eskatzaileek diru-laguntzak jasotzeko betekizunak betezen dituzten ala ez zehazteko. Halaber, udal teknikariek ikuskaritzako bisita egingo dute, egindakoa udal lizentziarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Informazio guztia jaso eta gero, ebaluazioko txostena egingo da eta bertan, onuradunek eta eskaerak diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztela agertu beharko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako Instrukzio eta Balorazioko Batzordearen txostenak diru-laguntzen eskaeren ebaluazioa jasotzen du; gainera, Hirigintzako zinegotzi eskuordeak alkatzeari aurkezteko proposamena txosten horretan oinarrituko da, alkatetza baita diru-laguntzaren emakida ebazteko organo eskuduna.

Prozedura ebazteko eta ebazpena aldatzeko gehieneko epea ezin daiteke hiru hilabetetik gorakoa izan. Epe hori eskaera egiten denetik aurrera hasiko da zenbatzen. Gehieneko epea ebazpena jakinarazi gabe amaitzen bada, interesatuek beren eskaerari administrazioaren isiltasunagatik uko egin zaiola ulertu ahal dute. Eskabidearekin batera aurkezten den dokumentazioa osatugabea bada interesdunei hamar eguneko epea emango zaie zuzenketak egiteko, jakinarazpena egiten denetik zenbatuta. Epe horretan eskatutako agiriak ez badira behar bezala aurkezten, eskaera ezetsi egingo da, eta ezin izango du hurrengo deialdian parte hartu.

Diru-laguntzaren emakida alkate-udalburuak ebatziko du; ebazpen horrek administrazio-bidea amaitzen du eta interesatuei jakinarazi egingo zaie azaroaren 26ko 30/92 Legearen 58 artikulua araberako, urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatua; era berean, berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko legeriak ezartzen dituen epeak irekiko dira.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

5. ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Diru-laguntza emateko erabakia hartu ondoren, horren zenbatekoa onuradunak eskaera-orrian adierazitako kontu zenbakian ordainduko zaio, gehienez hilabeteko epean.

6. ARTIKULUA. HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK.

Diru-laguntza emateko oinarrizko irizpidea eskariak aurkeztu diren hurrenker kronologikoa da, baldin eta ordenantza honetako eta dagokion deialdiaren baldintza guztiak betetzen badituzte eta aurrekontu nahikoa badago.

Diru-laguntza ukatu ahal da, arrazoiak adieraziz, EATren arabera higiezinan dauden kalteek eraikinaren egonkortasuna, segurtasuna, estankotasuna edo egiturazko finkapena arriskuan jartzen badute.

Ekitaldiko udal aurrekontuan kreditu nahikorik egongo ez balitz, arrazoi hori dela eta kanpoan geratzen diren eskatzaileak onuradunak izan litezke onesten den hurrengo deialdian; eskatzaileek, beti ere, honako araudia eta dagokion deialdiaren baldintzak bete behar dituzte.

7. ARTIKULUA. ZENBATEKOAK

1. Oro har, udalaren obra-lizentziaren eskaeraren tasak gehi eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu eta horren zenbatekoa izango da diru-laguntzaren kopurua.

2. 35 urte baino gehiagoko eraikinetan, aginduzko obra-lizentzian ezarritako aurrekontuaren %10 ordainduko da diru-laguntzaren bidez, eta gehienez 10.000 €; udalaren obra-lizentziaren eskaeraren tasak eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu eta horren zenbatekoa erantsiko zaio diru-kopuru horri.

Aipatu aurrekontuan geroago egiten diren aldaketak ez dira aintzat hartuko, baldin eta lizentzia handiagotzeko eskaeran agertzen ez badira; behar denean, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren likidazioan aitortutako obren zenbatekoaren aldaketak ere ez dira aintzat hartuko, zenbateko horren eta hasierako likidazioaren arteko aldea, lizentzia handiagotzeko beharrik gabe burututako obren kostua aldatzeagatik gertatu bada. Obren zuzendari teknikoak, obren amaierako egiaztagiriaz ziurtatu behar du hori.

8. ARTIKULUA. ITZULTZEKO ARRAZOIAK

Jasotako diru-kopurua eta diru-laguntza ordaindu den unetik aurrerako berandutze-interesak itzuli egin beharko dira ondoko kasu hauetan:

-Diru-laguntza bat lortzea eskatutako baldintzak aizunduz, edo hura ematea eragotziko zuten baldintzak aipatu barik utziz.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

-Udal lizentziak baimendu duen obra-proiektua guztiz edo zati ez betetzea, edo obren burutzapenean diruz ez lagundutako kontzeptuak edo obrak sartuz.

-Egiaztatzeko eta kontrolerako udal jarduketak oztopatzea edo aurre egitea.

-Honako araudian edo indarreko ordenantzan jasotzen den beste edozein arrazoi.

9. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. Tituluan eta gainerako lege aplikagarrietan ezarritakoa izango da.

ARTICULO 10. ARTIKULUA. ARAU APLIKAGARRIAK

Diru-laguntza hauei ordenantza honetan ezarritakoa aplikatuko zaie eta horren ezean, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta berori garatzen duen Araudian (uztailaren 21eko 887/06 Errege Dekretuak onetsia) ezarritakoa.

11. ARTIKULUA. INDARREAN HASTEAK

Honako ordenantza indarrean hasiko da, hasierako onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik eta testu osoa BOEn argitaratzen denetik hogeita hamar egunen buruan.